R 500.000 euro edo gehiagokoa (BEZa barne) eta 1.000.000 eurotik (BEZa barne) beherakoa bada	%15
R 1.000.000 eurotik gorakoa bada (BEZa barne)	%18

Aurreko datuetatik, guztietan handiena erabiliz (2018. urteari dagokiona), R = 356.664,44 euro ateratzen da, hortaz, adjudikaziodunari ordaindu beharreko prima hau izango litzateke:

$((356.664,44 / 1,21) \times 10\%) = 35.371,68$ euro/urtean.	2 urtetan: 70.743,36 euro
---	---------------------------

ESKUD0ae483f-faed-4c1a-bc51-4304971f93d4



	Gasto 2024	Gasto 2025	promedio anual
APROVISIONAMIENTOS			
Productos para la piscina	15.406,00	16.068,00	15.737,00
Productos de limpieza	36.746,00	38.326,00	37.536,00
Otros	12.376,00	12.908,00	12.642,00
TOTAL	64.528,00	67.302,00	65.915,00
MANTENIMIENTO Y REPARACIONES			
Mantenimiento y reparaciones	302.154,00	315.147,00	308.650,50
SUMINISTROS			
Suministros	3.360,00	3.504,00	3.432,00
OTROS SERVICIOS EXTERNOS			
Servicios profesionales	86.070,00	89.771,00	87.920,50
Seguros	38.500,00	40.156,00	39.328,00
Servicios bancarios	6.500,00	6.779,00	6.639,50
Publicidad	9.750,00	10.169,00	9.959,50
Otros	53.000,00	55.279,00	54.139,50
TOTAL	193.820,00	202.154,00	197.987,00

	Gasto 2024	Gasto 2025	promedio anual
PERSONAL			
Salarios	814.320,28	849.336,06	831.828,17
Seguridad Social a cargo de la empresa	268.725,69	280.280,90	274.503,30
Geroa	4.885,92	5.096,02	4.990,97
Formación	3.936,80	4.106,08	4.021,44
TOTAL	1.091.868,69	1.138.819,06	1.115.343,88

TOTAL GASTOS DIRECTOS	1.655.730,69	1.726.926,06	1.691.328,38
Gastos generales (3%)	49.671,92	51.807,78	50.739,85
Beneficio industrial (6%)	99.343,84	103.615,56	101.479,70
TOTAL GASTO	1.804.746,45	1.882.349,41	1.843.547,93
IVA 21%	378.996,75	395.293,38	387.145,07
TOTAL	2.183.743,21	2.277.642,78	2.230.692,99

PPTO. BASE LICITACIÓN						VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	primas	modificaciones	
1.843.547,93	2.230.692,99	3.687.095,86	4.461.385,99	70.743,36	368.709,59	4.126.548,80

Bigarraena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa osoa eskatzen denez, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke; kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (214.000 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **erregulazio harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzailearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurto berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurto bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, **kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen**.



Bosgarrena.- Bestalde, administrazio baldintza partikularren pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatutako legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditenteak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditenteak, behar bezala arrazoitua”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”.

Kasu honetan, Legearen 119. artikuluan xedatutakoa betetzen da kontratazio espeditente hau 2021CSER0002 kontratazio-espeditentea suntsiaraztearen ondorioa baita eta kiroldegia itxita baitago. Beraz, espeditente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, kontratazio-espeditente hau **presako izapidetzeren** bidez izapidetuko da. Hori dela eta, eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritik, enpresa lizitatzaileren proposamenak bitarteko elektronikoen bidez baino ez dira aurkeztuko eta proposamenak aurkezteko epea murriztuko da aurrerago esango den bezala.



Aurreiazko tramitazioa: Kontratu honen exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar denez, kontratu hori finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzearen mende dago, hau da, kontratua benetan gauzatzeko, etorkizuneko ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Aurrez adierazi den bezala, kontratu hau trantsitorioa izango da, eta horregatik, urte bateko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik; hala ere, beste urtebeteko luzapena aurreikusten da. Dena den, **kontratuaren indarraldia hasteko ezinbesteko baldintza izango da aurreko emakida kontratuaren suntsiarazpenaren behin betiko ebazpena egotea; hau da, lizitazio hau baldintzatua egongo da Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala (2021CSER0002 espedientea) izeneko kontratuaren behin betiko suntsiarazpenera.**

Balio zenbatetsia: SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia lontan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia 4.126.548,80 eurokoa da.

PPTO. BASE LICITACIÓN						VALOR ESTIMADO
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	primas	modificaciones	
1.843.547,93	2.230.692,99	3.687.095,86	4.461.385,99	70.743,36	368.709,59	4.126.548,80

Pleguarekin batera, egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomiko guztiak lortu dira. Azterketa ekonomiko hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: 2.230.692,99 euro, horietatik, 1.843.547,93 euro printzipalari dagozkio, eta 387.145,07 euro, BEZari (% 21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, udal-aurrekontuaren 1000.227.99.342.00 aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Aurreiazko tramitazioa: Kontratu honen exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar denez, kontratu hori finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzearen



mende dago, hau da, kontratua benetan gauzatzeko, etorkizuneko ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

Ordainketak: Adjudikaziodunak ekitaldi bakoitza hasi aurretik hurrengo ekitaldirako prezioen proposamena egingo du, eta Udalak onartu egin beharko du. Prezio horien zenbatekoari eta aplikazioari buruzko desadostasunen kasuan, Udalak izango du prezio horiek bere aldetik finkatzeko ahalmena. Enpresa esleipendunak instalazioetan emandako zerbitzuengatik ezarritako prezioak kobratuko dizkie erabiltzaileei. Ondorioz, alde batetik, kontratistak hilerio fakturatuko dio Udalari kontratuaren xede diren zerbitzuen prezioa, eta bestetik, hilean behin, Udalak enpresa esleipendunari fakturatuko dio Udalaren kontura lortutako zenbatekoa, instalazioen erabiltzaileei kobrantza kudeatzeagatik.

VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da.

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua



aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozela.

VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 4.126.548,80 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino altuagoa da eta **Udaleko osoko bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Baina behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, **proposatzen da osoko bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. **Eskuordetze horretatik salbu geratuko litzateke kontratua eteteari, suntsiarazteari eta azkentzeari buruzko edozein ebazpen hartzea.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Ángel Martínez de Rituerto Arregui, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Goiru Ezeiza Arandia.

Abstentzioak: Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Tellería.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaz baliatuta, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketarako zerbitzu-kontratuaren espediente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua denez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar denez, **presakotzat jotzea.**

Bigarrena.- Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketarako zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea. **Kontratuaren indarraldia hasteko ezinbesteko baldintza izango da aurreko emakida kontratuaren suntsiarazpenaren behin betiko ebazpena egotea; hau da, lizitazio hau baldintzatua egongo da Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala (2021CSER0002 espedientea) izeneko kontratuaren behin betiko suntsiarazpenera.**

Hirugarrena.- Behin osoko bilkurak kontratazio jardunbidea onartu eta lizitazioari hasiera emanda, horren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Eskuordetze horretatik salbu geratuko litzateke kontratua eteteari, suntsiarazteari eta azkentzeari buruzko edozein ebazpen hartzea.

Laugarrena.- Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

Epea: Aurrez adierazi den bezala, kontratu hau trantsitorioa izango da, eta horregatik, urte bateko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik; hala ere, beste urtebeteko luzapena aurreikusten da. Dena den, kontratuaren indarraldia hasteko ezinbesteko baldintza izango da aurreko emakida kontratuaren suntsiarazpenaren behin betiko ebazpena egotea; hau da, lizitazio hau baldintzatua egongo da Tolosako udal kirol-



instalazioen kudeaketa integrala (2021CSER0002 espedientea) izeneko kontratuaren behin betiko suntsiarazpena.

Balio zenbatetsia: SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia lontan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia 4.126.548,80 eurokoa da.

PPTO. BASE LICITACIÓN					VALOR ESTIMADO	
1 año sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	primas	modificaciones	
1.843.547,93	2.230.692,99	3.687.095,86	4.461.385,99	70.743,36	368.709,59	4.126.548,80

Pleguarekin batera, egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomiko guztiak lortu dira. Azterketa ekonomiko hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: 2.230.692,99 euro, horietatik, 1.843.547,93 euro printzipalari dagozkio, eta 387.145,07 euro, BEZari (% 21).

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, udal-aurrekontuaren 1000.227.99.342.00 aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Aurretzeko tramitazioa: Kontratu honen exekuzio materiala hurrengo ekitaldian hasi behar denez, kontratu hori finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzearen mende dago, hau da, kontratua benetan gauzatzeko, etorkizuneko ekitaldietako udal-aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

Ordainketak: Adjudikaziodunak ekitaldi bakoitza hasi aurretik hurrengo ekitaldirako prezioen proposamena egingo du, eta Udalak onartu egin beharko du. Prezio horien zenbatekoari eta aplikazioari buruzko desadostasunen kasuan, Udalak izango du prezio horiek bere aldetik finkatzeko ahalmena. Enpresa esleipendunak instalazioetan emandako zerbitzuengatik ezarritako prezioak kobratuko dizkie erabiltzaileei. Ondorioz, alde batetik, kontratistak hileroko fakturatuko dio Udalari kontratuaren xede diren zerbitzuen prezioa, eta bestetik, hilean behin, Udalak enpresa esleipendunari fakturatuko dio Udalaren kontura lortutako zenbatekoa, instalazioen erabiltzaileei kobrantza kudeatzeagatik.



Bosgarrena.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren administrazio baldintza partikularren plegua eta preskripzio tekniko partikularren plegua.

Seigarrena.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian, lizitatuak beren proposamenak aurkez ditzaten. Presakotzat jotzearen ondorioz eta SPKLren 156. artikuluko 3) idatz-zatiko b) letran xedatutakoarekin bat etorritik, enpresa lizitatuak proposamenak bitarteko elektronikoen bitartez soilik aurkeztu ahal izango dira **20 egun naturaleko epean**, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Zazpigarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Kirolak Sailari, Kontuhartzailetza eta Diruzaintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketarako zerbitzu-kontratuaren lizitazioa presakotzat jotzea, kontratazio espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

3. TOLOSAKO UDAL KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUAN EMAKIDADUNAK USTIAPEN KONTUAN AURKEZTUTAKO DATUAK EZ ONARTZEA.

Antolakuntza Lan Esparruko Aparteko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2023ko azaroaren 10eko irizpena

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua
Unitate sustatzailea	Kirolak Saila
Espedientea	2021CSER0002

ESKUD0ae483f-faed-4c1a-bc51-4304971f93d4



II.- AURREKARIAK

Lehena.- 2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

Bigarrena.- Tolosako Udaleko Kirol Saileko buruak 2021ko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea zuen zerbitzu emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Hirugarrena.- 2021eko irailaren 30ean Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten beraien eskaintzak.

Bosgarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, ezaugarri nagusi hauekin:

- Epea: hamar urte kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.
- urteko kanona: 120.000 euro.

Administrazio-emakidek eta -baimenek ez dute BEZik ordaindu behar, hargatik eragotzi gabe ITPk eta EJDk (kostu bidezko ondare-eskualdaketen kontzeptua) zergapetzea. Bestalde, enpresa emakidadunak partikularrari emandako zerbitzua BEZari lotuta egongo da, eta ez BEZa ordaintzetik salbuetsita.

Seigarrena.- Aurrekoa aintzat hartuta, 2022ko otsailaren 23an, udalbatzak onartu zuen BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, urteko kanon honekin: 120.000euro.

Zazpigarrena.- Adjudikazio ebazpena lizitazaille eta hautagai guztiei legearen arabera jakinarazi eta gero, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresak kontratazio-arloko errekurtsio berezi bat jarri zuen ebazpenaren kontra.

Zortzigarrena.- Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoak, 2022ko uztailaren 5eko 116/2022 (EB 2022/050) Ebazpenaren bidez, aipatutako errekurtsio hori ezetsi eta esleipen prozeduraren etendura kentzea erabaki zuen. Horrenbestez, 2022ko irailaren 1ean formalizatu zen BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresarekin kontratu berria.



Bederatzigarrena.- 2023ko irailaren 13an, kontratuaren udal arduradunak kontratuaren ustiapen kontuari buruzko txostena igorri du, aurrerago zehatzago aipatuko den moduan.

III.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Lizitazioa arautzen zuten administrazio baldintza partikularren pleguan eta preskripzio tekniko partikularren pleguan hau zehazten zen:

Urte bakoitzean, urriaren 15 eta 30 bitartean amaitu baino lehen, enpresa emakidadunak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

- *Ustiapen-kontua ixteko aurreikuspena eta hurrengo urterako aurrekontuaren aurreikuspena*
 - *Justifikatutako hurrengo urterako prezioak aldatzeko proposamena*
 - *Jarduera-programa eta egutegia aldatzeko proposamena.*
 - *Hurrengo urteko zerbitzua emateko behar diren langileen aurreikuspena*
- Tolosako Udalak egokitzen jotzen duen beste edozein ekintza.*

Urte bakoitzeko martxoaren 31 amaitu baino lehen, enpresa emakidadunak honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

- *Aurreko urteko ustiategiaren urteko kontua, behar bezala ikuskatutako instalazio bakoitzaren arabera banakatuta.*
- *Kirol-memoria, agirietan ezarritako adierazleak barne.*
- *Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiriak.*
- *Kontratuaren arduradunak eskatutako edozein dokumentu: mantentze-datuak, kontsumoak, egindako inbertsioak edo hobekuntzak, kexa eta iradokizunen txostena, inbentario eguneratuak, etab.*

Horiek horrela, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak 2023ko martxoaren bukaeran pleru teknikoan eskatzen diren datuak bidali ditu; horien artean, 2022ko kudeaketaren memoria eta kontuak.

Hemen, beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko, zuzenean erreferentzia egingo zaio udal teknikariak igorritako txostenari, bertan jasotzen baitira datu zehatzak; edonola ere, modu laburrean jasoko dira hemen 2022ko ustiapen-kontua ez onartzeko ebazpen-proposamena egiteko funtsezko inguruabarrak (laburtuta):

1.3.- 2022ko abonatu kopuruak

Abonatu kopurua

10.770 abonatu 2022/12/31 datan; 2020ean, baino 972 gehiago. Beraz, lehen urtean 2019ako %93ko errekupeazioa eman da lizitazioko azterketa ekonomikoaren bidean. COVID-19ko izurriteak sarraski handia egin zuen abonatuaren konfiantzan eta 2020 urtean Tolosako udal kirol instalazioetako 9.798 abonatu izatera ailegatu ziren. Alegia,



%15,43 ko jaitsiera eta horien artean gehien emakumezkoak izan ziren.
10.770 horietatik % 65,48 Tolosakoak dira, beste urteetako alderatuz ehuneko baxuagoa da. Hala ere, Tolosako herritarren %35 Usabal kiroldegian abonatuak direla esan genezake, ohiko ratioetatik oso gaintetik, edonola.

Urteko baxak 1.879 dira, (1.319 iaz) ia abonatuaren %17,45. Abonatu izaera uzteko arrazoi nagusia EZ ERABILERA izan da. Aipatu baja bat dagoela zerbitzuari loturikoa. Sexuari erreparatzen badiogu abonatu kopuruak dira: % 46,68 emakumezkoak eta %53,32 gizonezkoak. Jaitsiera nabarmena pandemiatik hona, %3,5. Nahitaez, hausnartu beharreko datua da. Aldiz, zuzendutako jardueretan emakumeen parte-hartzea % 90 ingurukoa da. Familia ugarien ehunekoa beste kiroldegietakoa baino handiagoa da Usabalen, konkretuki, ditugun tarifek hori hobesten dutelako: 2.324 pertsona dira guztira (229 gehiago).

ERREGAIEN GAINKOSTUA:

Gas eta elektrizitate erregaien prezioak ere ia %50 igo dira, eta ondorioz, azterketa ekonomikoak ustiapen kontuaren gastuen inguruan zioena ezin izan da bete 2022an. Beraz, ustiapen kontuaren errekupeazioa atzeratu du gai honek. Asmoa zen aurreikusita zeuden kontsumo elektrikoa jaisteko inbertsioak lehenestea gastuak txikitzeko, baina emakida 2023 urtera atzeratu ditu, bitartean ur-tenperatura kontsignetan doikuntzak eginez.

INBERTSIOAK:

Pleguetan ezarri ziren inbertsioak bi motatakoak dira:

- 1.- Eraikinak eta zerbitzua mantentzeko edo hobetzeko inbertsioak: 1.380.000 €
- 2.- Birjartze-inbertsioak: 350.000 €

Horiek horrela, 2022an emakidak egin dituen inbertsioen laburpena hau da:

Inversión	Concepto	Año	Proveedor	Importe	Con IVA
Instalación Provis	Conf. Inicial Programa Gestión	2022/10/1	Proyectos Visuales Zaragoza	2.994,08	3.622,84
Instalación Provis	Conf. Inicial Programa Gestión	2022/11/1	Proyectos Visuales Zaragoza	2.994,08	3.622,84
Instalación Provis	Conf. Inicial Programa Gestión	2022/12/1	Proyectos Visuales Zaragoza	2.994,08	3.622,84

Guztira: 8.982,24 €

Pleguen arabera 2022 urtean 169.250€ aurreikusten ziren eraikin ezberdinetan hobekuntza- inbertsioak egitea, baina kontratuaren hasiera atzeratu denez, 2022ko urteari dagokiona 56.417€ dira. Datu horien arabera, %15,92ko exekuzio maila lortu da.

Bestalde, birjartze-inbertsioei dagokienez, ez da 2022 urtean gasturik egin.

Gainera, emakidak esleipena irabazteko hobekuntza inbertsio hiru proposamen egin zituen:

- 1.- Eguzki-plakak Usabal kiroldegiko kantzaren goiko aldean
- 2.- Usabal kiroldegiko sarrera nagusian ate bikoitza eranstea aire korronteak saihesteko



3.- Usabal kiroldegiko aparkalekuan kotxe elektrikoa kargatzeko 2 posta eraikitzea.

Txosten osatzen ari naizen une honetan, oraindik ez dugu hauen arrastorik eta lehen biak garrantzitsuak dira zerbitzurako. Datu horien arabera, %0ko exekuzio maila lortu da.

USTIAPEN EKONOMIKOA:

BPXPort XXI SLU enpresak Tolosako kirol instalazioen ustiapeneko 2022ko emaitzak aurkeztu ditu behin-behinekoz, 2023koa apirilaren 14an, +19.467,81€-ko emaitzarekin. 2023ko ekainaren 2an, behin betiko kontuak Airén auditoreen txostena ``informe de procedimientos acordados `` eta PWCren `` análisis cargos intragrupo `` txostena aurkeztu zuen emakidak (6. eranskina). Txosten horien ondorioz, behin betiko kontuak aldaketa bat izan dute eta azken emaitza hau da: +28.461,25€. Edonola, aurkeztutako kontu ekonomikoan badago kontu bat `` 623000007 Management Fee-GtosGenerales `` izenduna 71.106,00€ zenbatzen dituen gastuen %9,38 suposatzen duena eta 2022ko Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralaren emakida kontratuaren ustiapen kontu ekonomikoa guztiz aldatzen duena.

Kontuan hartu behar da, batetik, AGEMek eginiko lizitazioko azterketa ekonomikoan, eta BPXPort emakidadunak lizitazioan aurkeztutako proposamen ekonomikoan, bestetik, ez zela Management Fee-Gtos Generale edukia aipatzen, eta ondorioz, organo kontratatzailearekin pleguak eta jurisprudentzia aztertu ondoren ez gaude dago ados emakidak aurkeztu dituen 2022ko likidazioarekin eduki berri honek ``aurretik`` espedientean zehaztuta ez dagoen kontzesio kontratu honen izaera goitik behera aldatzen duelako eta lizitazio honek dituen erregelak eta izaera orokorra hausten duelako. Emakidak ustiapen kontuaren emaitza aldatzen du eta kanon aldagarriaren aplikagarritasuna suntsitu, ondorioz, emakidadunak aurretik lortzen du etekin handiena eta kudeaketa balorazioari zentzu guztia kentzen dio.

Teknikari honen iritziz, ustiapen BpxPort Slek emakidadunak aurkeztutako 2022ko ustiapen kontuaren emaitza ekonomikoak ezin du jaso aurretik zehaztuta ez zegoen edukia, alegia; Management Fee-Gtos Generale. Ondorioz, aurkeztutako kontuen emaitza ezin da onartu KONTRATUAREN IZAERA OROKORRAREN aurka doalako eta kanon aldagarriaren formulazioaren aurka doalako.

Datu horiek guztiak kontuan hartuta 2022ko ustiapen kontuaren likidazio emaitza honako hau litzateke: + 99.567,25€

EMAKIDADUNAREN ORDAINSARIA:

Emakidadunaren ordainsaria ustiapen kontuaren emaitza ekonomikoaren eta kudeaketaren balorazioaren arteko erlazioaren arabera ezartzen da.



Plegua teknikoak hau dio:

Emakidadunaren ordainsaria Irabaz i finkoa :

Emakidadunak lortutako irabazi garbiaren ehuneko ehun eskuratuko du beretzat, urteko 62.000 euroko mugarekin. Kopuru honen gaintik irabazi aldakorra aktibatzen da Irabazi aldakorra:

Ezarritako kopuru horretatik lortutako diru-sarrerarik handiena emakidadunaren eta Udalaren artean banatuko da, zerbitzuaren urteko kudeaketa onak aurrez ezarritako kalitate-estandarretan lortutako balorazioaren arabera. Hori guztia, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguan xedatutakoarekin bat etorritik.

Horiek horrela, kontuan izanik 2022ko ustiapen kontuaren likidazio emaitza + 92.329,36 eurokoa dela, aurkeztutako auditatutako kontuen udal proposamenaren arabera, eta, pleguak dioten arabera, 62.000 euroko emakidarentzat dira zuzenean etekin finko moduan eta soberakinarekin 30.329,36 euroekin indarrean jartzen dela kanon aldagarria honen banaketa eta goiko laukian ezarritako kalitate-estandarretan lortutako balorazioaren arabera 23.399,10 euro BPXPort SLri dagokio (%77,15) eta Udalari 6.930,26 euro dagokio (22,85%).

PROPOSATZEN DU

LEHENENGOA.- BPXPort SL enpresak 2023ko uztailaren 24an aurkeztutako 2022ko auditatutako Tolosako Udaleko kirol instalazioen kontu ekonomikoak +28.461,25€ emaitza ez onartzea "62300007 Management Fee-Gtos Generales" edukina aurretik ez delako kontratuaren espedientean azterketa ekonomikoetan zehaztu.

BIGARRENA.- 2022ko auditatutako Tolosako Udaleko kirol instalazioen kontu ekonomikoko emaitza aldatzea + 92.329,36 eurora.

HIRUGARRENA.- Zerbitzuaren urteko kudeaketa onak aurrez esleipen pleguetan ezarritako kalitate-estandarretan lortutako balorazioaren arabera 2022ko ustiapen kontuaren kanon aldagarria aplikatzea eta era honetan banatzea; 23.399,10 euro BPXPort SLri dagokio (%77,15) eta Tolosako Udalari 6.930,26 euro dagokio (22,85%).

Beraz, aipatutako txostenetik hiru ondorio atera daitezke:

- Erabiltzaile kopurua modu garrantzitsuan igo da.
- Egin beharreko inbertsioan portzentaje baxu bat besterik ez da egin.
- Ustiapen-kontuan "Management Fee-GtosGenerales" izeneko kontzeptua dela eta, emaitza artifizialki murriztu egin da.



Udal kontuhartzaileak 2023ko irailaren 14an igorritako txostenean, ontzat ematen ditu arestian aipatutako zenbakiak, baina inbertsioei dagokien ajuste bat aplikatzen du emaitzan, horrela aipatutako 99.567,25 euroko zenbatekoari 7.237,89 euroko zenbatekoa kendu beharko litzaioke; horrenbestez, **azkeneko emaitza 92.329,36 eurokoa da.**

KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETAREN SARRERA ETA GASTUAK 2022			
SARRERAK	BPX 2022 (iraila-abendua)	Ajusteak	BPX 2022-2 (iraila-abendua)
Salmentak eta zerbitzuak ematea	758.214,45		758.214,45
Abonatuak	580.087,55		580.087,55
Sarrerak	7.359,37		7.359,37
Jarduerak	117.901,83		117.901,83
Matrikulak	9.334,35		9.334,35
Artikuluaren salmenta	4.355,33		4.355,33
Alokairuak	22.807,67		22.807,67
Besterik	16.368,35		16.368,35
Beste sarrerak	2.000,00		2.000,00
Dirulaguntzak	2.000,00		2.000,00
SARRERAK GUZTIRA	760.214,45		760.214,45
GASTUAK			
Erosketak eta enpresak egindako lanak	52.997,57		52.997,57
Kanpo zerbitzuak	386.073,61	-71.106,00	314.967,61
Kanona	40.000,00		40.000,00
Konponketak eta kontserbazioa	19.757,03		19.757,03
Zerbitzu profesionala	71.606,00	-71.106,00	500,00
Banku zerbitzuak	1.345,50		1.345,50
Publizitatea	1.767,95		1.767,95
Hornidurak: elektrizitatea, gasa, ura ...	246.331,82		246.331,82
Besterik	5.295,31		5.295,31
Partsonal gastuak	292.178,95		292.178,95
Ordainsariak	219.920,21		219.920,21
Gizarte Segurantzza eta Geroa	72.258,74		72.258,74
Inbertsioak	503,07	7.237,89	7.740,96
Altak	0,00	7.740,96	7.740,96
Amortizazioak	503,07	-503,07	0,00
GASTUAK GUZTIRA	731.753,20	-63.868,11	667.885,09
EMAITZA	28.461,25	63.868,11	92.329,36

IV.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino altuagoa da; gainera, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, lau urte baina gehiagokoa denez, Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio organoa.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2023ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Ángel Martínez de Rituerto Arregui, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Goiru Ezeiza Arandia.

Abstentzioak: Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Maria Villanueva Tellería.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Ez onartzea BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak 2023ko uztailaren 24an aurkeztutako 2022ko auditatutako Tolosako Udaleko kirol instalazioen kontu ekonomikoak arestian aipatutako arrazoiengatik eta bereziki, azterketa ekonomikoan aurreikusi ez zen "623000007 Management Fee-Gtos Generales" kontzeptua sartu izanagatik.

Bigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, enpresak izandako 28.461,25 euroko mozkin ez onartzea.

Hirugarrena.- Ustiapen-kontua lizitazioa arautu zuen azterketa ekonomikoarekin bat egitea eta horrenbestez, "623000007 Management Fee-GtosGenerales" izeneko partida ezabatu eta ari dagokion 71.106 euroko zenbatekoa urteko emaitzan txertatzea eta, horrela, 2022ko emaitza 92.329,36 eurokoa izatera pasatzea. Horrela, enpresari zuzenean 62.000 euroko mozkin dagokio.

Laugarrena.- Zerbitzuaren urteko kudeaketa onak pleguetan ezarritako kalitate-estandarretan lortutako balorazioaren arabera 2022ko ustiapen kontuaren mozkin aldagarria (92.329,36-62.000) aplikatzea eta era honetan banatzea; 23.399,10 euro BPXPort SLri dagokio (%77,15) eta Tolosako Udalari 6.930,26 euro dagokio (22,85%).

Bosgarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunari, Kirolak Sailari, Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari.



TOLOSAKO
UDALA

2023IPLE0015

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, erabaki du Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuan emakidadunak ustiapen kontuan aurkeztutako datuak ez onartzea.

Besterik gabe, 21:05ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IPLE0015-2023-11-14 Plenoko akta/2023-11-14 Plenoko akta ()